

# DOLAREA

Kattalini izugarri gustatzen zitzaion urriko usaina. Urrian etxe guztian zehar zabaltzen zen usaina. Sagar usainaren aroma. Begiak itxi eta sagarrak eta sagarrak irudikatzen zituen hegan eta hegan etxe guztian zehar. Izugarri maitezuten etxeko guztiek dolarea martxan jartzen zuten garaia. Baserri guztiak dantza eta dantza egiten zuen danba- danba-danba erritmoan. Dolarea zen etxearen hezurdura, etxearen sostengua. Etxeari zentzua ematen ziona. Pentsa zitekeen dolareak ia urte osoa geldirik egiten zuela hilabeteko langintzarako indarrak gordetzen. Izan ere, makineria hura guztia martxan jartzeko, piezaz pieza mugimendu haiek sortzeko, indarra behar zen, indarra, trebezia eta erritmoa. Bai, baserri guztiak dantza eta salto egiten zuen kolpe eta kolpe artean. Eta Kattalin hunkitu egiten zen. Dolarea zen Igartubeitiren dantza-taupada.

Ederra zen urria, jendetsua, soinu eta zaratez, usain eta aromez betea. Ederra zen sagarren zartadurak oinpean sentitzea, zarta eta zarta, sagar-zuku artean, plasta eta plasta, zipriltinez belaunak bustitzea. Oinen lana, egurraren lana, oinen lana, egurraren lana, oinen lana... eta parrasta egiten zuen sagar-zukuak goitik behera irrist ikuiluaren erdian aho-zabal egoten zen kupelera.

Umeez oin ttikiak ahora eramaten zituzten zukua zupa eta zupa gozatzeko, behatz potoloari nahigabe hozkatzeraino sarri. Helduek topa eta irri egiten zuten egunaren amaieran ondo egindako lana ospatzeko. Beso-hankak neka-neka eginda eramaten zituzten gauean ohera. Eta ohetik danba-danba oihartzuna entzunez lo hartzen zuten, dolareak ez baitzion gauaren erdian dantza egiteari uzten.

Ederra zen urria Igartubeitin, jendetsua, soinu eta zaratez, usain eta aromez betea.